

**1197 – Competencia digital docente. Enseñar a aprender en entornos online
(Irakasleen gaitasun digitala. Online inguruneetan ikasten irakastea)**

Lola Torres – Campamento Norte

Online irakaskuntzaren erronka nagusietako bat da ikaskuntzan parte hartzen duten irakasleen eta ikasleen presentzia sozial, kognitibo eta didaktikoa sustatzea eta azaleratzea. Laguntza hori ezinbestekoa da ikas-prozesuan, bai ikaskuntzaren alderdi gizatiarra eta pertsonala sustatzeko, bai hizkuntza bat ikasteen ikasle batek bere jardunari edo garapenari dagokionez senti dezakeen ziurgabetasun-maila murrizteko.

Ikastaro honetan, online inguruneetan hizkuntzak ikasten eta irakasten ikasiko dugu: zein baliabide eta tresna digital erabili helburu bakoitzerako, zein metodo erabili eta zein dinamika proposatu ikaskuntza aktibo eta esanguratsua sustatzeko. Ikuspegi eta proiektu berritzaile desberdinak aztertuko ditugu, hala nola ikasgela iraulia edo *flipped classroom*, ikaskuntza mugikorra, gamifikazioa, pentsamendu bisuala, *storytelling* eta ikaskuntza kooperatiboa edo lankidetzazkoa. Modu praktikoan ikasiko dugu hizkuntza-ikasgelan ICTak erabiltzeko zenbait era, elkarlana nola bideratu, hausnarketa nola egin, baita jarrera kritikoa nola sustatu ere.

Ikasgela (www.irakasbil.eus > NIRE IKASTAROAK)

Matrikula egin ostean, ataritik plataforma barrura sartu, dagozkizun **erabiltzaile-izena** eta **pasahitza** idatziz. Ikasgela "Nire ikastaroak" sailean aurkituko duzu.

Helburuak

1. Online inguruneetarako ikaskuntzaren oinarriak identifikatzea: ikaskuntza kolaboratiboa, aktiboa eta ikaslea ardatz duena.
2. Hizkuntza-ikasgelan ikuspegi eta proiektu berritzaileak aztertzea eta garatzea: ikasgela iraulia (*flipped classroom*), ikaskuntza mugikorra, gamifikazioa eta pentsamendu bisuala.
3. Hizkuntza-ikasgelan teknologia erabiltzen ikastea, ikuspuntu kritiko, parte-hartzaile eta eraldatzaile batetik.

Edukiak

- Nire motxila digitala: abiapuntua eta erronkak.
- Tutorearen eta ikaslearen rola online inguruneetan.
- Nola dinamizatu zure online eskolak? Online ikaskuntzarako metodologiak eta ikuspegiak.
- Online eskolak planifikatzea.
- Online jarduera malgu eta moldagarriak egiteko proposamenak.
- Praktika onak partekatzea.
- Ebaluatu, online inguruneetan ikasteko.

Metodologia

Ikastaroa metodologia aktiboan eta elkarlanean egindako jardunean oinarrituko da. Online dauden edukien eta bibliografiaren irakurketak parte-hartzaileak hausnarketara eta zenbait jardueratan parte hartzera bideratuko ditu.

Ebaluazioa

Ikastaroko moduluetan zehar garatuko den eginkizunean oinarrituko da ebaluazioa: online eskola baten plangintza osoa egiteko ekintza-plan baten diseinua, irakasle bakoitzaren hezkuntza-testuingurura egokitua.

Azken eginkizuna ebaluatzeko, honako osagai hauek hartuko dira kontuan:

- komunikaziorako eta lanerako guneetan izandako parte-hartzea;
- ikastaroko jarduerak eta online autoebaluazioa egitea;
- eta ikastaroan ari diren irakasleen beraien autoebaluazio-txostena.

Bibliografia

- Pozo, J. I. (2018). Aprendiendo a jugar partido en la educación. In F. Trujillo, *Activos de aprendizaje*, (5-10. or.). SM. <https://aprenderapensar.net/wp-content/uploads/2018/11/Primeras-p%C3%A1gina-de-Activos-de-aprendizaje.pdf>
- Ruiz, V. Torres, L. (2020). Hezkuntza-berrikuntza hizkuntza-ikasgelan. Bide posibleak. *eHIZPIDE*, 96. http://www.irakasbil.eus/argitalpenak/hezkuntza-berrikuntza_hizkuntza-ikasgelan
- Ruiz Martin, H. (2020). *¿Cómo aprendemos? Una aproximación científica al aprendizaje y la enseñanza*. Editorial Graó.